



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ADISKIDE ETA SENIDE

ASTE SANTUA 2021

GAZTEOK



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

AURKEZPENA ETA MOTIBAZINOIA

Garizuma aldirako eta Aste Santurako lagungarriok helburu bi lortzeko asmoagaz prestatu dira. Lehenengoa, norbanako, talde, mobimentu, alkarte edo parrokia bakar bat be ez daitela Garizuma aldi eta Aste Santua ospatzeko eta bizitzeko lagungarri barik geratu. Izan be, honako hau, berez, liturgia aldi esanguratsua da sinistedun bakotxaren eta alkarte bakotxaren bizitzarako, eta batez be gaur egun, Jaunak gure bizitza pertsonalean, familia, lanbide eta alkarte bizitzan, gure maitasuna, fedea eta itxaropena ospatzeko eta zabaltzeko eskatzen deuskun testuinguru historiko jakin honetan.

Bigarren helburua, Garizuma aldia eta Aste Santua lotzeko baliagarri izango eitekean ildo nagusiaren inguruko materiala eskaintzea. Ildo nagusi hori, hain zuzen be, ADISKIDE ETA SENIDE – COMUNIDADES ACOGEDORAS goiburuaren bidez adierazoten da. Goiburu hori, azken batean, deia da guztiontzat, liturgia aldi honetan, Barri Ona geure egiteko astia hartu daigun eta, ondorioz, bestea be hartu daigun, batez be, aurpegia eta historia daben eta pandemiak larritutako desbardintasun eta bidegabekeriazko testuinguruan euren biografia garatzeko borrokan diharduen beste horreek hartu daiguzan. Frantzisko Aita Santuak behin eta barriro egiten deusku deialdia gizarte senidetasun eta adiskidetasunezko lokarriak sortu daiguzan gure otoitz eta konpromisoa behar dauan emakume eta gizon bakotxagaz.

“Hego Amerikako Gotzainek erakutsi euskuenez, «adiskide egiten gaituan hurkotasunari esker bakarrik estimatuko doguz sakontasunez gaur egungo behartsuen balioak, euren bidezko irrikak eta fedea bizitzeko daben berariazko era. Behartsuen aldeko hautuak behartsuakazko adiskidetasunera eroan behar gaitu». (FT 234)

Hona hemen, lagungarri honeetan aurkituko dozuena: beste herrialde batzuetatik gure herri eta urietara bakarrik heltzen diran adin txikiko eta gazteei aurpegi zehatza jarten, euren historian eta inguruabarretan arreta ipinten lagunduko deusuen proposamena. Eurak dira kurutzean josita hil zan Kristoren beraren aurpegi eta, aldi berean, Jainkoaren etenbako dei, hartu, babestu eta gizarteratzeko (1) gauza izan gaitezana, horixe da-eta biderik eraginkorrena iluntasunetan argi egiteko, itxura batean heriotza baizik ikusten ez dan lekuetan bizia hedatzeko. Kristautasunaren tradizioan, abegi izatea, ekintza etiko edo alkartasunezko borondatezko jarrera ez ezik, ezinbesteko jardueratzat hartu izan da eleiz bizitzan, hau da, “anai-arrebaren sakramentu” deitu izan da, etorkina hartzea, Jainkoa bera hartzea dala aditzera emonez.

[1] Lagun hurkoa, etorkina danean, erronka korapilatsuak gehitzen dira. Egia da, egokiena, beharrezkoak ez diren migrazioak saihestea litzatekeana, eta horretarako bidea, jatorrizko herrialdeetan duintasunez bizitzeko eta hazteko aukera eraginkorra sortzea da, jatorrian bertan aurkitu ahal izateko norbere osoko garapenerako baldintzak. Baina ildo horretatik benetako aurrerapenik ez dagoan bitartean, errespetatu egin behar dogu gizon eta emakume bakotxak bere eta familiaren oinarrizko beharrianak asetzeko eta, horrezaz gainera, pertsona lez osotasuna

“Kristoren gorputza onetsi gura badozu, ez eizu behartsuengan biluzik aurkitzen dozunean gitxietsi, eta ez eizu bakarrik hemen eleizan onetsi, urtetean bertan behera izten badozu hoztasun eta biluztasunean. ‘Hau nire gorputza da’ esan eban Jaunak berak, “gose nintzan eta ez zeunsten jaten emon” eta “nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsena neuri egin zeunsten” be esan eban... Zertarako apaindu Kristoren mahaia urrezko edalontziez, Kristo bera gosez hiltzen bada? Lehenengo, emon jaten gosetiari, eta gero, geratzen danagaz apainduko dozu Kristoren mahaia. Eleizak ez dau jantzi eta mihiserik behar, arima garbia baino; behartsuek, oster, kontu handiz eurez arduratu gaitetzala behar dabe (...)” (Juan Crisostomo, Estatuei buruzko homilia; san Mateoren Ebanjelioari buruz; I homilia Eutropiori buruz)

Proposamen hau lagungarri izango ahal da otoitz egin eta ospatu eta euren familia atzean itzi eta gure artean bizimodu duina bilatu gura daben ume eta gazte etorkinen aldeko konpromisoa bakarka eta alkartean bizi daizuen.

Honako honen bitartez, dei egiten deusuegu Aste Santuari dagokion burutzea emoteko, Pazko egunaren bezperako gaueko eleizkizunean parte hartu daizuen zuon alkarreetan. **PAZKO LORATU on eta eraldatzailea opa deusuegu!**

jadesteko lekua bilatzeko dauan eskubidea. Guregana iristen diran etorkinen alde egin daikeguzan ahaleginak lau aditzetan laburbildu daitezke: hartu, babestu, sustatu eta gizarteratu. Izan be, kontua ez da «goitik gizarte laguntzarako egitarauak jausten iztea, lau ekintza honeen bidez bidea alkarregaz egitea baino, euren kultura eta erlejino ohiturei eusteaz batera, aldeak onartzeko prest dagozan eta alde horreek giza senidetasunaren izenean baloratzen dakien uri eta herrialdeak eraikitze». (FT 129)

HAINBAT ARGIBIDE PROPOSAMEN HAU BAKARKA EDO TALDEAN MARTXAN JARTEKO

Egun Bakotxerako proposamen bat egingo dogu. Begiespena eguen santurako, kurutze-bidea bariku santurako eta otoitza zapatu santurako. Ardatz bik artikulatzen dabez hiru proposamenok. Lehenengoa, eguneko pasarte ebanjelikoan kontatutako eszenan sartzen lagundu, protagonistak, euren hartu-emonak eta gertaeren aurrean dabezan jarrera eta erantzunak ezagutuz. Bigarrena, pasarte ebanjelikoaren begiespenetik, pasarte hori, pertsonaiak eta euren sentimentuak gure sasoiko emakume eta gizonen bizitzan gaur-gaurkoak dirala ikusi.

Une bakotxari ekin aurretik lagungarri izango dozu:

- Leku egokia, atsegina, erosoak aukeratu.
- Egun honeetarako berariazko sinboloak eskura izan: mahaia ogi eta ardao apur bategaz, konketa eta eskuoihala, kurutzea, kandela...
- Beharbada, isiltasuna egiteko eta baretasuna lortzeko, musika gozoa jartea egokia izan daiteke.
- Arnasa sakon hartu, baretzen ari zarala sentitu arte.
- Apurka-apurka, kanpoko isiltasunak barrutik isiltzen lagunduko deutsu.
- Orduan, prest izango zara eguneko proposamenari ekiteko.



EGUEN SANTUA

BEGIESPENA BAKARKA ETA TALDEAN OTOITZ EGITEKO

Hasieran

Aukeratu eta atondu lekua. Jarri sinbolo batzuk, egun honetan benetan zer dan garrantzitsua zehazteko: mahai gainean, lorak, ogia, baso bete ardao ipini, eta konketa eta eskuoihala mahaiaren oinetan. Musika egokia jarri. Kandela biztu. Arnasa sakon hartu eta isiltasuna egin.

Hona hemen hainbat xehetasun azken afaria ze testuingurutan ospatzen dan hobeto ulertzeko


Eleizak Eguen Santuz gogoratzen eta ospatzen dau Jesusek, Olibondoen mendian atxilotu baino ordu batzuk aurretik, ikasleakaz ospatu eban "azken afaria". Agur-afari haretan, Jesusek, herriz herri ibili zanean, lakuaren ondoan atsedean hartzen ebenean, edo mendi-tontorrean batzen ziranean, edo alkarregaz jaten, poztasun eta gaitzespenetan bat egiten, Jainkoaren gauzez hitz egiten,... ebenean, ordu luzez bere ondoan izan ebazan adiskideak batu ebazan.

Baina, aldi berean, kontaketa ebanjelikoan herri juduarentzat aparteko aldia zan Pazko aldian kokatutako afaria be izan zan. Pazko aldian, gertaera esanguratsu bi ospatzen ziran: Egiptoren murrontzatic askatzea eta Ituna egitea Jaunagaz. Pazko aldian gogoratzen eta ospatzen zanez, Faraoiak Egipton esklabo lez ebazan israeldarrak, Jainkoaren eta Moisesen laguntzagaz, handik atara ziran eta 40 urtez basamortuan ibili ziran Agindutako lurraldera heldu arte. Holan gogoratzen eben ituna egoala Jainkoaren eta herri haren artean, eta horren bitartez Israel herriak Jainkoaren legea errespetatzeko konpromisoa hartzen eban eta Jainkoak herri hori era berezian babesteko konpromisoa. Askapen eta itunaren jai honetan, Jesus iraganeko gertaera ha bere bizitzagaz eguneratzen saiatu zan.

Israel herriak bere egin eban esaldi hau: «Nire aita noraezean ebilen aramearra zan... Egiptora joan...» (Dt 26, 5). Itun Zaharra, oso-osorik, etorkin eta erbesteratuei, behartuta atzerritar edo erbesteratu izatea zer dan ondo baino hobeto dakienei, zuzendutako berbea da. Israel herriak hainbat bider sentitu eban bere historian behartutako migrazinoa zer dan. Israel herri lez eratu zan sasoiari, mobimentu migratzaile bi nabarmendu ziran.

Lehenengoan, Kanaan goseak estututa eta bultzatuta, hainbat talde Egiptora jatsi zan. Bertan, jatekoa aurkitu eben, baina bortxazko lan neketsuak jasateaz gainera, eta esklabotzat hartu ebezan. Urteera da Israelen bigarren mobimentu migratzailea: abiapuntua, esklabo lez baldintza negargarrietan lan egitera behartuta, eta triskatuta geratzeko zorian, egoan herria. Tribuek Egiptoren zapalketatik ihes egiten dabe lur barriaren bila, eta Egiptotik urtetea Israel herriaren historiari hasiera emoten deutsan salbazinozko gertaera bihurtzen da (Ur 14-15). Jasoten daben lurra, Kanaan herrialdea, Jainkoaren opari da eta beste batzukaz banatu behar dabe eta horregaitik jarrera etiko zehatzak agintzen jakez, esate baterako, uztaren %10a pertsonarik pobreenei emon.

Bada beste osagai esanguratsu bat ere: mahaiaren inguruan eseri jateko. Eseri eta mahaikide izatea esanahiz betetako ekintza da ekialdeko batentzat, bakea, konfiantza, senidetasuna, adiskidetasunezko lokarria eta abegia islatzen dualako. Jesus, behin baino gehiagotan, mahikide izan zan pekatariakaz, diru, osasun, arraza, erlejino eta moral kontuen eraginez baztertuta bizi ziranakaz. Jesusek mahaira deitzen eban jentea eta hori barri ona zan behartsu eta baztertuentzat eta, makina bat kasutan, boteretsuen gaitzespena ekarri eutsan eta zalaparta ugari eragin eban, azkenean, epaileen aurrera eroan eta kurutzean josi eben arte. Azken afarian be, ikasleakaz batera eseri zan mahaiaren inguruan, ospatzeko eta agurtzeko, aurretik, eban onena, doakotasunez eta senidetasunez betetako maitasuna (bere bizia emotea) itzita.



ENTZUN BARRI ONA

Azken afariaren testuinguruan kokatzen lagunduko deuskuen paragrafoak irakurri ondoren, isilik jarraitu eta irudikatu eizu, hori egiteak bere bizi arriskuan jarten ebala jakinda be, Jerusalem urian sartzea erabaki eban Jesus.

Horretarako, Markos 9, 30-32 irakurri daikezu. Bertan, Jesusek hil egingo ebela esaten ebanean, ikasleek, bildurrez, Jesusi ezer galdetzeko adorerik be ez eukiela ikusiko dozu. Irakurri orain, Lukas 22, 7-23; txatal horretan, Pazko-afaria bere adiskideakaz ospatu gura ebala adierazo eban Jesusek. Egoerak behartuta, euren herritik irten eta migratzea erabakitzen dauan hainbeste gazteren eszenan sartzeko deia be bada. Bat egin daikegu gazte honeekaz eta Nazareteko Jesusegaz euren sentimentuak, bildurrak, erabakiak, laguntzak, aukerak, ezintasunak, lorpenak, itxaropenak, ametsak,... ezagutu eta geure eginez.



GALDETU ZEURE BURUARI

1

Jesuentzat be ez zan erraza izango Jerusalemera igoteko erbagia hartu eta herrialdeko erdigune politiko, ekonomiko eta erlijiosoan behin betiko mezua helaraztea. Ez zan erraza izango, ingurukoak be (etxeakoak, ikasleak), aurka ebalako, bizia arriskuan jarten ebala uste eben-eta. Gatxa egingo jakon bere bildurrei, ahuldadeei, zalantzei... aurre egitea... Zer ibiliko ete zan Jesusen buruan eta bihotzean bueltaka egun erabakigarri hareetan?

Orain, jarri arreta, dalako egun batean, euren lurra, herria, herrialdea eta afrikar kontinentea atzean itzi eta urteteko erabakia hartu eben gazteengan. Irudikatu hareen azken egunak euren lurraldea itzi aurretik: nogaz afaldu eben, nor agurtu, ze zirrara, sentimentu, pentsamentu, amets, zalantza... izan eben, zelan igaro ebezan azken orduak... Ze izen eroien euren bihotzean itsasarte zeharkatzen eben bitartean?

2

Jesus, bere bizitzako une erabakigarri honeetan, nahiko bakarrik egon zala emoten dau. Ebanjelioek jakitera emoten deuskuenez, erabakiren bat hartu behar ebanean, nekatuta egoanean, zalantzaren bat eukanean,... "Abba" deitzen eban Aita Jainkoarengana be jotzen eban. Beronengan aurkitzen eban babesa, baretasuna, bakea, argia, itxaropena, indarra. Haregaz hartu-emonean, gizatiarrago sentitzen zan, maitasun eta doakotasun gehiago ebala eta bere bizitzaren eta etorkizunaren benetako zentzunari aurre egiteko gaitasun gehiago. Zelan jarduten ete eben alkarrizketan Jesusek eta Aita Jainkoak?, ze eskatuko ete eutsan Jesusek?, ze mezu entzungo ete eban Jainkoarengandik?, ze sentituko ete eban?

Eta Bizkaian dagozan eta ondoan seniderik ez daben gazte etorkinek, adin txikiko izanda, euren lurretik atarateko erabagia hartu ebenean... bakarrik ete egozan? Izan ete eben baliabide eta laguntzarik? Gehienak musulmanak izanda, Ala izan ete zan euren euskarri eta itxaropen nagusia? Zelan irudikatzen dozuz?

3

Jesusen Pazkoa, bizitzatik heriotzara eta heriotzatik betiko bizitzara igarotzea da eta Jainkoaren igarotze salbatzaileak zeharkatzen dau gertaera hori. Egiptoko esklabotasunetik ihes egitean itsasoa zeharkatzen dauan herriaren igarotzea da. Egoera batetik bestera igaro, esklabotasunetik askatasunera. Hobera igarotzea dakarren urratsa da.

Gure artean diran gazteak be Mediterraneo itxasotik igaro dira, saiakeran hiltzeko arrisku bizia jasanez, euren kide askori gertatu jakon lez. Bizitza osorako arrastoa izten deutesen zalantzazko igarotzea, arriskutsua, korapilatsua...


Gauaren iluntasunean eta oso urrun ikusten dan zerumugan amaiezin bihurtzen diran kilometro batzuk itsasoan, oinak lurrean ipinteak garaipen kutsua daualarik... Baina, itsas zakar eta arriskutsuaren esperientzia hori behin eta barrero errepikatzen da lehorrean be, oinarritzko eskubideak ukatzen jakezanean, esate baterako: etxe batean erroldatzeko aukera, paperak behar bezala euki, lan-kontratua, osasun-arreta, bizilekua, azken batean, osoko bizitzarako egitasmoa garatzeko eta herritartasun betea gauatzeko aukera.

Ze sentipen izango ete dabe gazte honeek, aukera bat izateko, bizimodu duina bizitzeko, dan-dana -baita bizia bera be- arriskuan jarri ondoren, erabaki horrek iristen diran herrialdeko biztanleen aldetik babesik ez dauala eta harrera duinik egiten ez jakela sentitzean? Agertuko ete da itxaropen eta erresilientziarik euren bizitzan?



ENTZUN

Entzun eta ikusi Migueliren bideo hau: **SALVEMOS LA HOSPITALIDAD**



KOMUNEAN JARRI

Bakarkako otoitzaldi honetan antzeman dozun zerbait batera jarri taldean.



AZKEN OTOITZA

Taldean batera jarri ondoren, Frantzisko Aita Santuak 2016.eko apirilaren 16an Lesbosen (Grezia) egin eban otoitz hau egin daikegu geuk be.

Jainko Bihozbera eta guztion Aita; zeure esku izten doguz, bildurra, zalantzak eta irainak jasan eta guzti horri aurre eginez, eta segurtasun eta itxaropen handiagoko lekua lortzeko xedeagaz, migratzea erabaki daben guztiak. Izan zakiez gertuko zure seme eta alaba honeei gure samurtasun eta babesaren bitartez. Eurei arreta eskainiz, inor bere etxea iztera behartuta egongo ez dan eta danak askatasun, duintasun eta bakean bizitzeko aukera izango daben mundua sustatu daigula.



BARIKU SANTUA

KURUTZE-BIDEA GAZTEENTZAT, BAKARRIK DAGOZAN UME ETA GAZTE ETORKINEN EGOERATIK

Hasi aurretik

Kurutze-bidea taldean egiteko asmoa badozue, banatu 15 egonaldiak eta girotu eta dinamizatu, irudiak, argazkiak, sinboloak, albisteak, gazte etorkinen lekukotasunak (eleizbarrutiak argitaratutako lagungarrietan askotarikoak aurkituko dozuz) gehituz. Jesusi lagun egingo deusagu bere unerik mingarrietan, gazte honeen bizitza eta zuen bizitza gogoan hartuz. Alkarregaz Kurutzerainoko bidea egitean datza. Jesusen sentimentuek eta hainbeste haur eta gazte etorkinen sentimentuek hunkitu egin behar gaitue.

Bakarka egingo badozu, zeure etxean edo zeuk aukeratutako beste lekuren batean, irakurri banan-banan egonaldiak, batetik bestera isilunea eginez, edo etxeko gela batetik bestera joanez egin, edo izadian bertan. Beste aukera bat, kurutzea egitea edo marraztea da eta bertan, Kurutze-bideari lotutako berbak idaztea. Orri batean, 15 egonaldiak jasoten dituan laukia egin eta bidean aurrera egin ahala sortu jatzuzan zirrarak idatzi. Lagungarri izan daiteke gero taldean batera jarteko edo zure bide eta otoitza jasoteko eta beste une batean irakurteko (1. Eranskina).

Hasieran

- Aukeratu eta atondu lekua.
- Egun honetako gauzarik garrantzitsuenak nabarmentzeko sinboloak jarri: kurutzea.
- Musika egokia jarri.
- Kandela biztu.
- Arnasa sakon hartu eta isiltasuna egin.
- Kurutzearen seinalea egin eta, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren aurrean zagozala konturatu.



SARRERA

Gaur, Jesusek, barriro bizi dau bere nekaldia derrigorrezko migrazioaren eta pertsonen salerosketaren biktima diran mutiko eta neskato, gizon eta emakume gazte horreengan. Jesusen nekaldia eta euren kurutze-bidea gure kaleetan, gure errepideetan, gure tailerretan eta gure soloetan, edo beharbada ezkutatuta, inork ikusten ez dituan lekuan, bizi daben anai eta arreba honeen nekaldia jarraitzeaz batera, eurakaz batera ospatuko dogu berbizkundearen itzaropena, maitasunaren txarkeriaren gaineko garaipena, biziaren heriotzaren gaineko garaipena



ENTZUN

Jesusegaz batera kurutzerako bideari ekin aurretik, entzun ondorengo abesti hau: "ELLOS SON TU ROSTRO" (IXCIS)



OTOITZA

Jesukristo gure Jauna, zure ikasleok zure jarraitzaile, kurutzerainoko jarraitzaile, egitea gura izan dozu; kurutze-bide honek prestatu gaizala beti, une gatzak eta gogorak gainditu eta zure atzetik jarraitzeko. Zeuri eskatzen deutsugu, Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldietan. Amen.



I. EGONALDIA: JESUS HERIOTZARA ZIGORTU DABE

Gogoeta

Makina bat etorkin ataraten da bere lurretik eta etxetik, heriotzara zigortu dabezalako. Gosea, gerra, jazarpen politiko eta erlijioso, pobretasunak eta miseriak hondatutako bizitza,... horra hor etorkin askok eta askok bere bizitzan jasaten eta sentitzen dauan heriotza-zigorra.

Jauna, ez dogu isiltasun konplizerik nahi, ezta "alkartasuna eta zuzentasuna" esan, baina ahulenen bizitzagaz egundoko irabaziak jasaten dabezanen berritsukeria faltsurik be!

-Jesus Jauna, zuk badakizu maite zaitudana.



II. EGONALDIA: JESUSEK KURUTZEA LEPOAN HARTZEN DAU

Gogoeta

Maleta edo motxila, hau da, emigrazinoaren kurutzea, lepoan hartzeko ordua da. Agurra senideei, kasu batzuetan betirako agurra, ez dabez-eta gehiago ikusiko. Senide eta lagun maiteak ondoan ez izatea da lehenengo kurutzea.

Zeu be, Jauna, bakarrik sentitu zinan kurutzeari oratzean; sufrimentuak bakardadean bizitzen dira. Luze eta gogorra izango zala somatzen zenduan bideari ekin zeuntson guri bizia emoteko.

- Jesus Jauna, nire bihotza zurearen antzekoa izan daitela.



III. EGONALDIA: JESUS LEHENENGO ALDIZ JAUSTEN DA

Gogoeta

Hona hemen, Nigeriatik etorritako Princesa emakume gaztearen lekukotasuna: "Igarotzen doguzan herrialdeetan, askok eta askok etorkinak bortxatu egiten dabez, ahul eta babes barik ikusten gaitue-eta; polizia lapur batzuek be, euren indarraz baliatuz, aldean geunkan apurra kendu egin euskuen, gure amets guztiak zapuztuz... itxaropena kendu eusten".

Isilarazitako ahots hori entzunez, biluztu gaitzean gure harrokeriatik eta ikasi daigun Berarengandik, Jainkoarengana eta zapaldutako anai-arrebengana joz, gure benetako handitasuna bilatzen.



Abestia: **Jauna, Jainkoaren Seme biziduna, erruki zaitez nitaz.**



IV. EGONALDIA: JESUSEK AMAGAZ TOPO EGITEN DAU KALBARIORAKO BIDEAN

Gogoeta

Jesusen Kurutze-bidean, Maria bere ama be agertzen da. Ikasleek ihes egin dabe baina amak ez. Amek erakusten daben adore, fideltasun eta ontasunaz eta iluntasunean be aurrera egiteko ausardia emoten dauan fedeagaz dago han. Haur, gaztetxo eta gazte etorkin askok eta askok ez dau ama ondoan izaten, askotan bakarrik etorten diralako, senide eta lagun barik. Kontsolamendu bakarra, Jainkoarenganako fedean edo euren amengan daben konfiantzan aurkitzen dabe, jakin badakie-eta, amen babesa dabena bidaiatzeko eta amek eurakaz sufritzen dabena ziurgabetasuna eta urruntasuna.

-Jauna, sinisten dot, baina handitu nire fedea.



V. EGONALDIA: ZIRENETARRAK JESUSI KURUTZEA EROATEN LAGUNTZEN DEUTSO

Gogoeta

Zireneko Simonek ustekabeen aurkitu eban kondenatuen jarraigo haregaz, beharbada beretzat ohiko samarra zan ikuskizunagaz. Soldaduek laborari mardularen lepoan jarten dabe kurutzea.

Bakardadea, gaitzespena eta bazterketa jasaten dabenek ume eta gazte etorkinengana ontasunez hurreratu eta euren sufrimentuakaz bat egiten dogun bakotxean, Jesusen kurutzea eroaten laguntzen dogu; eta, holan, munduaren salbazinoan esku-hartzen dogu. Eskerrik asko kurutzea eroaten lagundu eta bidean lagundu deuskuzuen zirenetar guztioi.

-Jesus Jauna, zer egin daiket zure alde?



VI. EGONALDIA: VERONICAK JESUSEN AURPEGIA LEHORTZEN DAU

Gogoeta

Veronicak irudikatzen dau fededun guztiena dan irrika hori: Jainkoaren aurpegia ikusi. Ontasunez, samurtasunez jokutzen dau. Ez da kutsatzen soldaduen zakarkeriaz eta ikasleen bildurrak ez dau geldiarazten. Maitasunezko ekintza horrek Jesusen benetako irudia inprimatzen dau bere bihotzean: gizatasunez, odolez eta zauriez betetako aurpegian, berak Jainkoaren aurpegia ikusten dau.

Veronika bihurtu behar dogu, kristau alkarteari, inguruari, familiari, adiskideei Jesusen aurpegia bakarrik dagoan, tratu txarrak eta gaitzespena jasaten dituan ume eta gazte etorkinarengan ikusarazteko.

-Jesus Jauna, nire bihotza zurearen antzekoa izan daitela.



VII. EGONALDIA: JESUS BIGARRENEZ JAUSTEN DA

Gogoeta

Mediterraneoan itota hil ziran Aylan eta Samuel txikiak zerutik garrasi egiten dabe gure kontzientzietara mundu zuzenagoa bilatu daigun. Euren oinazeak argi eta garbi erakusten deusku egundoko bidegabekeriak eragiten dabezan eta gure itsukeria sortzen daben norberekeria eta ideologiengatik menpe dagoan humanismoa bizi doguna. Dagoeneko ezertan sinisten ez dauan, eta Jainkoa ahaztu guran, joera nagusiari jarraitzen deuskan gizon-emakumea, azkenean, umeez be ez da arduratzen. Jaunak zama hori lepoan daroa eta jausi egiten da, gure bila etorri ahal izateko; begira dogu gure bihotza esnatu daiten; jausi egiten da gu altxatzeko.

-Jauna, erruki zakidaz.



VIII. EGONALDIA: JESUS JERUSALEMEKO EMAKUMEEZ ERRUKITZEN DA

Gogoeta

Jesusek hitz gogorak esaten deutsez Jerusalemeko emakumeei eta hauxe adierazten deusku geuri be: alperrekoa dala mundu honetako oinazeek hitzez eta sentimentuz erruki izatea, gure bizimodua ezertan aldatzen ez badogu. Semearen oinazeak ikusita jabetzen gara pekatuaren larritasunaz. Egundoko sufrimentua jasaten ari dan Jaunaren irudia ikusita, ezin dogu txarkeria arinkeriaz hartu. Ezin dogu ume eta gazte etorkinen sufrimentuari begira jarraitu Berari gure bihotz-barritzea galaraziz. Geuri be badinosku: «Ez negar egin nigaitik; zeuogaitik egin negar... izan be, enbor berdea honan hartzen badabe, zer gertatuko ete da zimelagaz?».

-Jauna, Jainkoaren Seme biziduna, erruki zaiten nitaz.



IX. EGONALDIA: JESUS HIRUGARRENEZ JAUSTEN DA

Gogoeta

Emakume etorkin gazteen egoera ikusita, lurra jota ikusten dogu barriro be gure gizadia: tratu txarrak, bortxaketak jasaten dabez, esklabo bihurtuta bizi dira eta hil be egiten dabez... Emakumeek eurek ez dabe Jainkoaren alaba izateagaitik dagokien duintasuna galtzen, behartu eta bortxatu egiten dabezanez ez dabe errespetatzen ez emakumeen duintasuna ezta eurena be. Emakume horreek erakusten deuskue gizon eta emakumeak behin eta barriro altxatzeko dauan gaitasuna; ezarritako kurutzeta egundokoa bada be, aurrera egiten dabe bidean lur barriaren agintzariaren bila. Jesus hirugarren aldiz jausi zan eta baita altxatu be eta, holan, itxaropena emoten deusku geuri be: beti altxatu gaitezke eta egunsenti barriaren zain egon.

-Jauna, gogoan izan gaizuz, zeure Erreinuan zagozan honetan.



X. EGONALDIA: JESUSI JANTZIAK KENTZEN DEUTSEZ

Gogoeta

Jantziak zelanbaiteko maila emoten deutso gizon-emakumeari gizartean; gizartean dauan lekua adierazten dau, norbait izatea dakartso... Jesus, jentaurrean biluzten dabe eta horrek zera adierazten dau: ez dala inor, baztertu eta danek gaitzesten daben bat baino ez da. Atzerritarren legea, errubakoentzako kartzelak, errefuxiatuen esparruak, kanporatzeak bero-beroan, eskakizun jasangaitzak...; zenbat bide asmatu dan etorkina bere duintasunetik biluzteko...! Zenbat bider sentitu garan duintasunetik eta eskubideetatik biluztuta, gure gainean ahalmena ebanaren nahierara.

-Jesus Jauna, jantzi gaizuz zure jainko eta giza duintasunez osotasunean.



XI. EGONALDIA: JESUS KURUTZEAN JOSTEN DABE

Gogoeta

Kurutzeko heriotzan dana anker eta gizatasun bakoa iruditzen jaku; baina, gure gizarteak, gaur egun, ume eta gazte etorkinak kurutzean josten jarratzen dau. Era askotara egiten da hori. Jesus kurutzean josten jarraitzen dogu beste herrialde batetik datorrenari aurreretxiakaz begiratzen deusagunean, edo bertan behera izten dogunean, edo legearen kontrako izatera edo bazterketara bultzatzen dogunean.

Jesusek aldean eroiazan gure oinaze eta atsekabeak. Geratu gaitezcan oinazetan dan Jainkoaren Semearen irudi mingarriaren aurrean.



Abestia: **Hemen nozu, Jauna, zeure borondatea egiteko**



XII. EGONALDIA: JESUS KURUTZEAN HILTEN DA

Gogoeta

Eguerdi aldea zan, eta ilundu egin eban lurbira guztian hirurak arte. Eguzkia ezkutatu egin zan, eta santutegiko oihala erdiz erdi urratu zan. Jesusek, oihu handia eginez, esan eban: «AITA, ZURE ESKUETAN JARTEN DOT BIZIA». HAU ESANDA, AZKEN ARNASA EMON EBAN. Gaur, hamaika ume, gaztetxo eta gaztek, gizon eta emakumek, ezintasun bera bizi dau bere bizitzan, esklabo, etorkin, errefuxiatu, baztertu, kanporatu eta behartsu lez. Hamaika ume eta gazte etorkin hiltzen da egunero edo muturreko baldintzetan ozta-ozta bizi da.

EGIN DAIGUN MINUTUKO ISILUNEA ETA GOGORATU DAIGUZAN, BIDE GABEKERIAREN, AXOLAGABEKERIAREN ETA JASANEZINTASUNAREN ERAGINEZ, SASOIA BAINO LEHEN BIZIA GALTZEN DABEN MUTIKO ETA NESKATO GAZTETXO ETA GAZTE ETORKINAK.

- JESUKRISTO GURE JAUNAREN NEKALDI ETA HERIOTZAREN BIDEZ, ERRUKI ZAKIGUZ, PARKATU GURE HUTSAK.



Musika hau entzun eta isilik egon, beila egin Jesusen kurutzearen ondoan.



XIII. EGONALDIA: JESUSEN GORPUA AMAREN BESOETAN JARTEN DABE.

Gogoeta

Arimateako Josek Pilatosengana jo eban eta Jesusen gorpua eskatu eutsan, eta jatsiz, oihalean batu eta harkaitzean zulatutako hilobian ezarri eban.

Migratzerakoan edo ametsezko paradisura helduta seme edo alaba galtzea lako egundoko zoritxarra gitxitan gozatu daiteke desagertutako senidea berreskuratzeko, besarkatzeko eta egokitasunez hobiratzeko aukeragaz. Gitxitan izaten da dolua egiteko aukera. Eta atsekabe horrek betirako iraungo dau. Hainbat erakundek eta kanpaina herrikoik, Arimateako Jose moderno lez, hildakoen nortasunaren arrastoari jarraitzen deutse, senideak bilatu eta eurakaz hartu-emonean jarten dira, euren etxeetatik urrun bizia galdu daben pertsona gazteen gorpuzkien aberriratzea ordaintzen dabe.

Zure ama estu eta larri dago eta bihotza apurtuta dauka. Erruki zakiez seme-alabengaitik negarrez dagozan emakumeei.

-Jauna, Mariagaz batera dinotsugu: "Gertatu bekit zeuk dinozunez!"



XIV. EGONALDIA: JESUSEN GORPUA HILOBIAN EZARTZEN DABE

Gogoeta

Ume eta gazte etorkin askoren biziak behin-betiko geratu dira lur arrotzeko hobi komunetan, helmugarako bidean edo itsas ondoan. Edo nork jakin, beharbada Itsasartearen alde honetako kanposantu bateko izen bako nitxo batean. Luto handiaren, iluntasun handiaren, isiltasunaren eta etsipenaren ordua da. Ezin da besterik egin. Ba ete dau lekurik itxaropenak?

-Jauna, sinisten dot, baina handitu nire fedea.

XV. EGONALDIA: BERBIZKUNDEAREN ZAIN

Gogoeta

Bere hilobiratzean hasten da egia bihurtzen Jesusek esandakoa: «Bene-benetan dinotsuet: Galgaraua, lurrean jausi eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, frutu asko emoten dau» (Jn 12, 24). Jesus da hiltzen dan galgaraua. Ze emonkorra dan gure Eleizarentzat immigrazinoaren kurutze-bidean sufritu eta probatutako gure fedea! Ze beharrezkoa dan guztion otoitza, konpromisoa eta salaketa gure anai-arrebei jasanarazitako bidegabekerien aurrean! Eta ezinbestekoa dogu, gainera, parkamena eskatzen eta emoten jakitea!



Abestia: ¡ **VICTORIA! TU REINARAS, OH CRUZ TU NOS SALVARÁ. S**



Ondorengo hau ere entzun daikezu: “Gentes con derecho”.

Kurutzerantz garoazan bide honetan, gure munduko makina bat lagunen kurutzeak ikusi doguz, batez be, gaur egun, axolagabekeria eta desbardintasunak kurutzean josten dituan neskato, mutiko eta gazteen kurutzeak. Jesusek, kurutzean, garrasi egiten dau ezerezean geratu dan hainbeste ilusino, amets, utopia eta itxaropenengaitik... eta, aldi berean, garaipenaren garrasia be bada! Lurreko ahulenen aldeko maitasunean emondako bizia, garaile atara da. Kurutzean, Jainkoak berak garrasi egiten dau behin betiko BAIEZKOA pertsonarik ahulenen eskubideen alde. Garrasi egin zeuk be! Zure bititza osoa lurreko behartsuen aldeko alkertasunezko garrasi izan daitela!

ANEXO 1

I. EGONALDIA

II. EGONALDIA

III. EGONALDIA

IV. EGONALDIA

V. EGONALDIA

VI. EGONALDIA

VII. EGONALDIA

VIII. EGONALDIA

IX. EGONALIDA

X. EGONALDIA

XI. EGONALDIA

XII. EGONALDIA

XIII. EGONALDIA

XIV. EGONALDIA

XV. EGONALDIA

ZAPATU SANTUA

ZALANTZA ETA BIDEAN ALKARTZEA

Bizi daigun Zapatu Santuko une hau otoitz giroan. Hiru zatitan banatutako proposamena da, guztira, 90 minutu.

- 1** Hasteko, Surge valentí a abestia entzungo dogu eta beronen bitartez Jainkoaren indarra eskatuko dogu ziurgabetasunaren erdian. Eta Jainkoaren Berbea be entzungo dogu, zehatz-mehatz, Jn 20, 1-16 txatala, Maria Magdalena, Pedro eta Joan hilobira doazeneko unea jasoten dauana. Iluntasunetik abiatu, ziurgabetasunetik igaro eta alkartzera daroan bidea jasoten dauan idazkia da (5 minutu).
- 2** Txatal hori irakurri ondoren, La mina o la nada erreportajea ikusiko dogu: gazte askok eta askok, jatorrizko herrialdean bizi dauzan ziurgabetasunez bultzatuta, hori atzean itzi eta beste lurralde batzuetara etorkizun hobearen bila ataraten diran gazteengan jarten da arreta. Hau da, izena eta aurpegia jarriko deusagu ziurgabetasunari, San Joanek bere ebanjelioan egiten dauan lez (45 minutu).
- 3** San Joanen testua irakurriko dogu barriro be eta honen haritik egingo dogu erreportajeari eta immigrazinoari buruzko irakurketa sinisteduna eta, azkenik, minutu batzuez, otoitza bakarka. Salmoa irakurriz amaitu aurretik, partaideek tarte honetatik nabarmenduko leukiena batera jarri daikie (25 minutu bakarka otoitz egiteko eta 10 minutu batera jarteko).

LEHENENGO UNEA

Ekitaldiari hasiera emoteko, kurutzearen seinalea egin eta danok batera esango dogu esaldi hau: Jesus, erakutsi eiguzu zure bidelagun izaten, bideetako Jauna zara-eta.



Abestia: **Surge valentí** del grupo Jesuitas Acústico.

*Hoy acepto seguirte
Dejar viejas certezas atrás
Arriesgar mis verdades, abrazar la inquietud
Ir más allá*

*Tus brazos extendidos
Marcan el horizonte al final
Encuentro tu mirada
Escapo del temor
Que me ancla en mi barca*

*Pero dudo y espero
Que el viento sople menos, que el sol alumbre más*

*Surge valentía
Disipa las dudas de este corazón
Que teme al cruzar
Las fronteras que limitan lo conocido
Allá mar adentro, sobre el agua caminar*


*En tus huellas mis pasos
En tus manos la fuerza del mar
Como tú quiero amar las miserias del mundo
Como tú a mi debilidad*

*Pero dudo y espero
Que el viento sople menos, que el sol alumbre más*

*Surge valentía
Disipa las dudas
De este corazón que teme al cruzar
Las fronteras que limitan lo conocido
Allá mar adentro, sobre el agua caminar*

*Surge valentía
Y despunta en mí tu modo
Tus huellas, tus llagas, tu forma de amar
Y cuando ya cansado, peligré tropezar*

*Surge valentía
Surge valentía
Surge valentía*



ENTZUN BARRI ONA

Jesukristoren barri ona San Joanen liburutik (Jn 20, 1-16)

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zan goizean goiz, oraindik ilun egoala, eta harria hilobitik kenduta ikusi eban. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite eban beste ikasleagana bihurtu zan lasterka, eta esan eutsen: – Eroan egin dabe Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri daben. Urten eban, orduan, Pedrok eta beste ikasleak, eta hilobirantz abiatu ziran. Biak batera joiazan lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago joian, eta lehenago heldu zan hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrian ikusi zituan, baina ez zan sartu. Heldu zan haren atzetik Simon Pedro be eta hilobian sartu zan. Oihal-zerrendak lurrian ikusi zituan, baita Jesusen burua batzen egondako zapia be; hau, ostera, ez egoan oihal-zerrendekin batera jarrita, beste laku baten batuta baino. Orduan, sartu zan beste ikaslea be, hilobira lehenengo heldu zana. Ikusi eta sinistu egin eban. Izan be, ordura arte ez eben ikasleek ulertu Liburu Santuak dinoana, Jesusek hilen artetik biztu behar ebala. Pedro eta beste ikaslea etxeratu egin ziran. Maria hilobi ondoan egoan, kanpoan negarrez. Eta, negarrez egoala, hilobirantz makurtu zan eta aingeru bi ikusi zituan, zuriz jantzita, Jesusen gorpua egon zan lekuan jesarrita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan eutsoen: – Zeri negar, emakume? Mariak erantzun eutsen: –Nire Jauna eroan dabe, eta ez dakit non ipini daben. Hau esan eta berehala, atzera bihurtu eta Jesus ikusi eban zutunik, baina ez zan konturatu Jesus zanik. Jesusek esan eutson: –Zeri negar, emakume? Noren bila zabiltz? Mariak, ortuzaina zalakoan, esan eutson: –Jauna, zuk eroan badozu, esaidazu non ipini dozun, eta neuk hartuko dot. Jesusek esan eutson: –Maria! Honek, hurreratuz, esan eutson hebreeraz: –Rabbuni! -hau da, maisu-.

BIGARREN UNEA



Dokumentala ikusteko esteka



Sinopsis

Abdelrazak Daoui meatzari gazte marokoarra da eta, datozen urteetan, bere familiaren bizi-baldintzak aldatzen ez badira, Espainian edo Frantzian etorkizun hobea bilatzeko helburuagaz bidaiari bakarrik ekingo deutzan neska gazte bihurtzeko aukera ugari dauan neskato baten aita. 2019an, TVE2ko En portada programan emon eben La mina o la nada erreportajeak ondorengo galdera bi honeei erantzuten lagunduko deuskun egoera jarten deusku aurrez aurre: nondik, ze ingurutik ihes egiten dabe bidaia migratzaile arriskutsuari ekiten deuzen adin txikiko neskato eta mutikoeak?, eta zeren bila ateratzen dira?, egia esan ez adin txikiko eta gazteak bakarrik, migratzen daben guztiek baino.

Egunero, Abdelrazakek eta beste makina bat gaztek –guztira, 2.000 inguruk-, bizia arriskuan jarten dabe 100 metroko sakonerako putzu txikietatik ikatza erauzteko. Putzu horreetan ez da gitxieneko segurtasun-baldintzarik beteten eta meazuloak hain dira txikiak non lurrean arrastaka ibili behar daben. Abdelrazakek eta bere lehengusu Yeduan eta Husseinek istripua jasan eben 2017an, lanean ari ziran meategia bat-batean behera etorri zanean. Lehengusuak itota hil ziran eta bera be arrisku bizian izan zan. Yerada bere bizilekuan ez dago beste aukera askorik eguneroko ogia irabazteko. Ikatza saltzetik hilean 80 euro inguru ataraten ditu eta hori ez da nahiko bizitzeko, berak eraikitako gela bakarreko eta argindar, komun eta ur korrante bako etxean bizi bada be.



Dokumentala hamar aipamenetan:

«Ikatza okerreña da Yerada uri honetan. Mundu honetako gauzarik eskasena, ikatza da. Meategiak, heriotza esan nahi dau. Bildur deutzat heriotzari, gaixotasunei. Danak emoten deust bildurra, baina derrigorrez jatsi behar dot, ez dago besterik. Familiari ogi apur bat eroateko bide bakarra da».

«Meategiko sabaia eraisten bada, ezingo zaitu inork lagundu, ezingo zaitu inork salbatu».

Yeradan, langabezia-tasa %40koa da, bikoitza, herrialdeko gainerako lekuetakoagaz alderatuz. Yerada kokatuta dagoan ekialdeko eskualdea bigarren eskualderik pobreena da Marokon.

Meategi honeetan, berrogeta hamar gazte inguru hil da azken 20 urteetan.

«Zoritxarrez, hemen gagoz. Hau egin ezik, ezin deutsegu seme-alabei jaten emon. Lan hobea emongo ahal deusku Jainkoak!».

«Ikusi zelako ikatz-zati ederra. Ba, saltzean, ez dala kalitate onekoa, harriz beteta dagoala, esango deusku erosleak. Aitzakiak baino ez ditu jarten, balioa kendu eta oso gitxi ordaintzeko».

«Hor behean lan egiten daben mutilek euren biriken gaitasunaren %70a galtzen dabe eta putz egiteko gauza be ez dira izaten».

«Neure begiez ikusi dot heriotza. Eurak neure ondoan hil ziran. Jatsi eta arriskuak hartzen jarraitzen dot, ez daukadalako ezer».

«Neka-neka eginda nago, eztarriko mina daukat. Txistua bota eta gauza baltzak ataraten jataz ahotik. Ikatza eztarrian itsasten da eta biriketako eta buruko mina etenbakoa da, egundoko zailtasunak ditut arnasa hartzeko. Gorputz osoa erabat desorekatuta dago, ezin dot egoera zehatz-mehatz azaldu».

«Batzuetan, kontu honi bueltak eta bueltak emoten deusadaz buruan eta ez itzultzeko erabagia hartzeko zorian izaten naz. Baina laster itzultzen da krisialdia, dirham bakar bat be ez dot poltsikoan, ezta ahora eroateko ezer be, eta zuzenean etorri behar izaten dot hona. Meategia da bizitza honetako gauzarik eskasena».

HIRUGARREN UNEA

Zapatu santuz, Jesusen jarraitzaileen alkarteak haren kurutziltzaketari, heriotzai eta berbizkundeari buruzko galderez betetako aldi barria bizi behar dau. Atsekabea eta porrota nabarmenak izateaz gainera, argi eta garbi islatzen dira, lehenengo, ilunetan hilobirantz doan (Jn 20, 1) eta, beranduago, Jesusen gorpua non dagoan eta zelan aurkitu ez dakialako (Jn 20, 11), hilobiaren aurrean galduta eta negarrez ari dan Maria Magdalenarengan. Bere bihotzean eta hasierako alkartearen bihotzean oraindik gau da. Abdelrazak Daouiren berba honeek primetan laburbiltzen dabe bere eta bere antzeko askoren etsipena:

«Ikatza okerrena da Yerada uri honetan. Mundu honetako gauzarik eskasena, ikatza da. Meategiak, heriotza esan nahi dau. Bildur deusat heriotzari, gaixotasunei. Danak emoten deust bildurra, baina derrigorrez jatsi behar dot, ez dago besterik. Familiari ogi apur bat erodateko bide bakarra da».

Erbestera joatera behartuta dagoan pertsona askoren itxaropenak kurutziltzatuta eta lurperatuta dagoz. Egitasmoak, aukerak, ametsak,... dana hankaz gora geratzen da langabeziaren (edo meategian gertatzen dan lez eskasegia dan lanaren), segurtasunik ezaren, gerraren, gosearen,... eraginez. Herrialdea bera, hilobi bihurtzen da. Hori holan izanda be, derrigorrez itzi behar dan lurra, lur maitea eta samintasunez oroitutako lur da beti. Horregaitik, Maria Magdalenak lez, etorkizun hobearen bila atarateko lurra itzi egin behar dala pentsatuta bakarrik, negar egiten da.

Mariak bizi dauan ziurgabetasuna ederto islatzen da hitzotan: «Eroan egin dabe Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri daben». Abdelrazaken eguneroko bizitza ziurgabetasunez beteta dagoala ikusi dogu dokumentalean: istripuren bat gertatuko ete da meategian?, eta istripurik badago, bizirik atarako ete naz?, zenbat ikatz atarako ete dogu gaur?, zenbat ordainduko ete deuskue?, nahiko diru izango ete dot hilebete honetan familiaren mantenurako?, aurkituko ete dot noizbait lan hoberik?... Honako ziurgabetasunek beste batzuetara eroaten dabe, hain zuzen be, prozesu migratzailearen ingurukoetara: bidaiak, batez be arriskutsua bada, eragiten dituan ziurgabetasunak eta helmugara heltzean agertzen diranak. Hilobirako sarrera blokeatzen daben harrien antzekoak dira, banan-banan kendu beharrekoak iluntasunaz amaitzeko.

- Zelan ete dagoz etxeakoak?
- Bizirik atara ete da bidaiatik? (galdera hau geratzen diranek egingo dabe)
- Noiz eta nola lortuko ete dot mugaren beste aldera igarotzea?
- Nor izango ete da konfiantzazkoa heltzen nazanean?
- Ondo hartuko ete nabe?
- Non biziko ete naz?
- Zenbat denpora behar izango ete dot lana aurkitu eta aurrera egiteko?
- Ze lan izango ete dot?
- Eta gaixotzen banaz?
- Zenbat denpora behar izango ete dot agiriak eskuratzeko?
- Eta porrot egin eta itzuli behar badot?
- Eta aberriratzen banabe?
- Noiz ikusiko ete dot barriro familia?

Gurari bakarra, etorkizun hobia, eta hamaika ziurgabetasun. Mobitzea, guzti horreei eta beste hainbesteri aurre egitea da, baina baita bizimodu hoberako aukera-baldintza be migratzen dauanarentzat eta bere etxekoentzat.

Orain, San Joanen liburuko txatala (Jn 20, 1-16) irakurriko dogu barriro eta minutu batzuek galdera horreen inguruan hausnartu:

- 1** Abdelrazaken antzera, etorkizun hobia aurkitu gura daben eta ziurtasunak baino gehiago zalantzak dabean pertsona guzti horreek ordezkatu daikez Mariak. **Hartu minutu batzuk euren alde, ezagutzen dozuzanen alde eta, euren izenak jakin barik be, egunero kalean aurkitzen dozuzan guztien alde.**

- 2** Harria kenduta dago eta, orduan, bizia barriro bizi izan daiteke. **Ze harri kendu behar dot nire bizia eta besteena benetako BIZI izan daiten?**

- 3** Ebanjelioan, hiru pertsonaiaren -Maria, Pedro eta Joan- jarrerak ikusi doguz, eta argigarri izan daitezke:
 - a. Mariaren erantzuna, presazkoa da: hilobiaren sarrerako harria kendu egin dabela ikusteaz batera, norbaitek Jesusen gorpua eroan egin dauala ondorioztatzen dau. Berbizkundearen kontua, burutik pasatu be ez jako egiten. **Arinegi ataraten ete dodaz etorkinei buruzko ondorioak?**

 - b. Pedroren jokaerak, polizia-inspektorearenak emoten dau: arineketan doa hilobira, sartu eta oihal-zerrendak lurrian eta Jesusen burua batzen egondako zapia, ostera, beste leku batean, ikusten ditu. **Etorkinak dirala-eta, ondo informatu eta horren araberako ikuspuntua dot edo irudi ona helarazten deuste, baina eurakaz hartu-emon zuzenik izan barik?**

 - c. Ikasle maiteak, Pedrok ikusten dauana ikusten dau, baina Jesus berbiztu egin dala ondorioztatzen dau. **Nire eguneroko bizitzan, badot hartu-emonik etorkinakaz? Banaz etorkinen baten adiskide? Nire bizilagun izaten izten deutset?**

- 4** Mariak bizitzan hainbeste emon deutanaren, bere Jesusen bila dihardu. Pertsona etorkin askoren bizitza be inguruan ez dagozan maiteez beteta dago: nire herrian itzi nebazan gurasoak, Itsasartea zeharkatzean itota hil zan semea, azken urte biotan laztandu eta besarkatu ez dodazan emaztea eta seme-alabak, herio-mehatxuek behartuta herrialdetik ihes egin eban semea... **Berbizkundera izen batez -Jesusesk «Maria» dinoanean- hasten dala kontuan hartuta, pentsatu dozu noizbait zuk zeuk besteen hutsuneak arintzeko aukeran?**

5

Hilobiko harriak ez dau sarrera oztopatzen, baina Mariak ez dau hori egin behar izan, kenduta egoan iritsi danerako. Ezinezkoa da Jesus, Bizia, hilobi baten barruan atxiki. Jainko Aitaren bizi-irrikak, orain aldi hobe bizi aldera, euren arriskuan jarten dabena pertsona guztiena gogoratzen deusku. San Ireneok inoanez, pertsonak bizi izatea da Jainkoaren aintza. Bizi nahi izatea baino ez jat eskatzen, Jainkoak esku-hartu daian eta nire eta besteen hirugarren eguna iritsi daiten. Irakurri otoitz hau eta minutu batzuez esan Jaunaren izena:

**Bizi
gingo zara,
zure arimaren
sakonean
Jesus
esaten
dozun
bitartean.
Hil
gingo zara,
barrurantz
eraitsitako
hormek
izen
hori
azpian
harrapatzean.**



AZKEN OTOITZA

LUR BARRIA

Lur barrian,
etxeek ez dabe giltzarik
eta hormek ez dabe mundua apurtzen.
Inor ez dago bakarri,
baina begiez,
eskuez
eta bihotzez
maitatzen da.

Malkoak, emonkorrak dira,
tristura, joan egin da
ez itzultzeko,
eta beragaz eroan dau
gorroto eta ezinikusien,
indarkeria eta harrokeriaren
zama astuna.

Bitxia da lur hori
zabaltzen dauan atea:
bere burua muga barik
emoten dauanak
isuritako odola da,
gauzez zain dagoanaren
mugagabeko pazientzia da,
lur barri horretan bizitzeko
aukaratuak izan garan
bere seme-alabon aldeko
Jainkoaren neurrigabeko
maite-sua da.

Jose Maria Rodriguez Olaizola, sj